

24. AZPEITIKO SANSILBESTRIE - ARAUDIA

1.- Artikulua - "XEYE" K.E.-k Azpeitiko udaleko laguntzarekin, 24. AZPEITIKO SANSILBESTRIE antolatu du.

2.- Artikulua - Bi lasterketa antolatuko dira: bata, 3 km ingurukoa, non 12 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango duten; eta bestea, 6 km ingurukoa, 14 urtetik gorakoentzako. Parte hartzea irekia izango da, emakumezko nahiz gizonezkoentzat, bertako nahiz kanpokoentzat, federatuta daudenentzat nahiz ez daudenentzat. Parte hartu ahal izateko, izena eman beharko da www.kirolprobak.com webgunean.

3.- Artikulua - Lasterketa hau 3 edo 6 kilometrokoa izango da, eta 2025ko abenduaren 31n egingo da. Irteera Zelai Luzen, izango da eta helmuga Azpeitiko Enparantza Nagusia izango da.

4.- Artikulua - Lasterketan parte hartu nahi dutenek antolatzaileek izena emateko prestaturiko orria bete beharko dute. Izena emateko orriak ohiko lekuetan eskuratu ahal izango dira. Izena ematean 8 eta 16 euro bitarteko partaidetza-kuota ordainduko dute.

5.- Artikulua - Antolatzaileek adierazitako ibilgailuek bakarrik jarraitu ahal izango dute lasterketa.

6.- Artikulua - Antolatzaileek proba modurik egokienean eta kiroltasun osoz egiteko ardua hartu dute. Horretarako, aurrez antolatze-lanetan aritutako jendeak kontrolatuko du lasterketa, eta Gurutze Gorriaren laguntza eta asistentzia ere izango dira.

7.- Artikulua - Antolatzaileek lasterkari guztiei gomendatzen diete lasterketa aurretik azterketa medikoa egitea, badaezpada.

8.- Artikulua - Antolakuntzak bere gain dauka "Erantzukizun Zibila" poliza eta atleten "Erantzukizun Zibil eta Ezbeharren" aseguruia edukiko dute.

9.- Artikulua - Lasterkariak izena ematen duen unetik arauak guztiz ezagutu eta onartzen ditu. Sasoi onean dagoela adierazten du, eta ez duela bere burua arriskuan jarriko edo lasterketan parte hartzea eragozten dion gaixotasunik. Bere gain hartzen ditu, baita ere, proba honetan parte hartzeak sor diezazkiokeen kalteak.

10.- Artikulua - Dorsala ikusgai izan beharko da probaren ibilbide osoan.

11.- Artikulua - Parte-hartzaileak, argazki, bideo eta beste edozein ikus-entzunezko materialean azaltzen denean, publizitate-erabilera baimentzen dio antolakuntzari, onartuz bere izena azaltzea probako sailkapenean, komunikabideetan eta/edo Interneten.

12.- Artikulua - Ezinbestekoa da izen-emate orrian eskatzen diren datu guztiak zuzen betetzea, NAN zenbakia barne.

13.- Artikulua - Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, izaera pertsonaleko datu-babesari buruz ezarritakoa betez, parte-hartzaileek emandako datu pertsonal guztiak eta lasterketan lortutako irudiak antolakuntzaren fitxategian gordeko dira, lasterketako parte-hartzea kudeatzeko, baita sustapena, banaketa eta difusiorako ere.

14.- Artikulua - Lasterketa ezeztatzen bada antolakuntzaren esku ez dauden arazoengatik, barne eta ez mugatuta, ustekabeko klimaren ondorioz, udal, eskualde edo nazioko autoritateen dekretua, leherketa, gerrako ekintzak, matxinada, ekintza terrorista edo ekintza terroristaren mehatxua, sabotaiak, epidemia edo grebak direla medio, parte-hartzaileek ez dute eskubiderik izango izen-emate-kuotaren dirua jasotzeko, ez eta beste galera batzuen ordainketarako, hala nola bidaia-gastuak edo ostatua.